

Ezker Kintza plan a

**Ezkerraldea
gara.**
Un futuro en común

ehbildu

Aurkibidea

Sarrera	3
Etxebizitza	4
Zaintza	6

Sarrera

2022an, entzuketa eta hausnarketa oinarri zituen ibilbide ireki eta parte-hartzaile historiko bati hasiera eman zion Ezkerraldeko EH Bilduk Ezkerraldea Gara prozesuaren bitartez. Eskualde zein lau herrietako askotariko agente eta eragileekin bildu eta diagnostiko partekatua osatu ondoren, gure lurraldearentzako proposamen estrategikoa landu genuen: Ezkerraldea 2030 Plan Estrategikoa.

Ortzimuga ertain-luzea helburu, aipatutako planak honako ertz estrategiko nagusiak aletu zituen. Batetik, iragana eta orainaldia aintzat hartuta, Ezkerraldearen egoeraren analisia; bestetik, Ezkerraldea 2030 Ikuspegia, hiru ataletan sailkatuta: ekonomia, lurraldea eta pertsonak. Bukatzeko, gobernantza eredua, 121 ekimen eta hainbat proiektu eragile mahai gaineratu genituen.

2026an, aipatutako lanak eta begiradak oinarri, ondorengo Ekintza Plana aurkeztu dugu, bizpahiru urteko epe laburrari erantzun eta ikusmira ildorik urgenteenetan iltzatzeko: etxebizitzan eta zaintzan.

Bi lan-esparru horietan jarriko du arreta EH Bilduren dinamika politiko-instituzionalak gure eskualdean, Ezkerraldea erreferente eta ispilu bilakatu dadin bien ala bien politika publikoetan. Horra hor gure anbizio politikoa.

Alabaina, eremu horiek orain arte ez bezalako lidergo baten bidez indartu behar direla iritzi dugu. Ikuspegi eraldatzailez jardungo duten politika publikoek halabeharrez behar dituzte jarduteko modu berriak, molde zaharkituak alboratu eta eredu berriak mahai gaineratuko dituztenak.

Horrenbestez, Gobernantza Kooperatiborantz aurrerapausoak emateko garaia dela uste dugu, administrazioak, herritarrak eta bestelako eragileen arteko lankidetzak eta kudeaketa partekaturako gobernantza esparruak sortuz.

Etxebizitza

Etxebizitza krisi betean, udal eskumenak aktibatu behar dira egoerari aurre egiten lagundu eta udalerrietatik aterabideari ekarpena egiteko. Beste modu batera esanda, egun, gure lau herrietan geldirik dauden etxebizitza politikak diseinatu eta martxan jarri behar dira ahalik eta azkarren, Galdakao, Lekeitio, Azpeitia edota Oreretan egin bezala.

Ezkerraldeko Udalak etxebizitza larrialdiaren aurrean soluzio eta eragile proaktibo izan behar dira, eta EH Bilduk hurrengo neurriak ezar daitezen bultzatuko du:

1. 12 urtera (3 agintaldi) begirako udal-etxebizitza plana garatzea

Udalerriaren egoeraren diagnostikoa egin eta udalerriak dituen aukerak aztertzeke.

2. Herrietako enpresa edo sozietate publikoak etxebizitza politiken buru bilakatzea

Barakaldoko Eretza, Sestaoko Sestao Berri eta Portugaleteko Surposa erakundeek funtzioak berraztertu eta langile eta aurrekontuz hornitu behar direla uste dugu, horiek gidatu ditzaten tokiko etxebizitza politikak.

Santurtzin, gaur-gaurkoz, ez dugu horrelako instituziorik eta, beraz, herriaren egoera eta beharren arabera aztertu beharko litzateke zein litekeen prozesua gidatzeko eragilerik egokiena.

3. Etxebizitza hutsak mobilizatzea

3.1. Etxebizitza hutsen errolda egin eta jenderik gabeko etxebizitzak izendatzeko prozedura abiatzea.

3.2. Etxebizitza hutsei kanona aplikatzea, horretarako etxebizitza-tipologia zehatza(k) lehenetsiz.

3.3. Etxebizitza huts horiek alokairura bideratzeko prestatzea: Bizigune programa, birgaitzeko laguntzak...

4. Erabilera turistikoko etxebizitzak (ETE) eta erabilera turistikoko logelak (ETL) arautzea

Ezkerraldea, oraingoz, turismo masiboaren arriskutik salbu dagoela esan dezakegun arren, baditu arretaz jarraitu beharreko bi fenomeno: batetik, gero eta nabarmenagoa den eskualdearen beraren eskaintza turistikoa eta, bestetik, Bilbotik, hau da, ingurune turistikotik, hurbil egotea. Azken elementu hau izan liteke kezka-iturri nagusia, hiriburuak jaso (eta jasan) ezin dezakeen ostatatzea gurera etor liteke eta.

4.1. Gehienezko indize bat ezartzea ostatu turistikorako edozein lizentzia-mota emateko

4.2. ETE edo ETL-a beheko bizitegi-solairuan egotea.

4.3. Komunitatearenetatik aparteko sarbideak izatea.

4.4. Eraikin edo atari bakoitzeko ostatu turistikoen gehieneko kopurua ezartzea.

4.5. Intsonorizazio-baldintzak ezartzea.

5. Eredu tentsionatu izendatzea

2023ko Estatuko Etxebizitza Legeak eremu tentsionatu izendatzeko aukera ematen die udalei, Eusko Jaurlaritzak, besteak beste, alokairuen igoera muga dezan eta berrien prezioa prezio indizearen bidez ezar dezan.

Gaurdaino, ezer gutxi mugitu dute norabide horretan Barakaldo, Sestao, Portugalete eta Santurtziko Udalek, eta bada garaia tresna hau ere udal-administrazioon eskura izateko.

Zaintza

Gaur-gaurkoz inork ez du zailtza egiten XXI. mendeko gizarte honek duen erronka nagusietako bat dela zaintzarena eta, horrenbestez, gure herriak prestatu behar ditugula horri erantzuteko: herri zaintzaileak edota zaintzen duten herriak eratzea izan behar da gure ortzimuga.

Hortaz, ezinbestean, zaintza zeharkakotasunez eta ikuspegi sistemikoz landu behar dute gure Udalek: hirigintza, mugikortasuna, kultura, hezkidetza, hizkuntza, merkataritza... Zaintzak zirimiria izan behar du, eremu guztiak blaituko dituen.

Hona hemen zaintzaren ildoak erdigunera ekarri eta indartzeko bost proposamen:

1. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren publikakaziorantz urratsak ematea

Zerbitzu estrategikoa izanik, publikakazioaren aldeko apustua egiten dugu epe ertainerako helburu gisa. Epe laburrean, premiazkoari heldu eta, zerbitzua osoki publikoa izateko norabidean, honako neurriak sustatuko ditugu:

1.1. Udal lizitazioetan klausula sozialak sartzea.

1.2. Langileen lan-baldintzak hobetzea.

1.3. Aurrekontu zuzkidura nahikoa bermatzea.

2. Etxeko zaintza lanari buruzko informazio eta aholkularitza-zerbitzuak sortzea

Etxeko zaintzaileen sektorea oso feminizatuta eta prekarizatuta dago. Kalteberatasun egoeran dauden emakumeen presentzia handia duen lan-sektorea da; gehienak migratuak.

2.1. Lan arloko aholkularitza eta orientabidea eskaintzea, eskubide eta betebeharrei lotutakoa.

2.2. Autonomia erkidegoetako eta udaletako baliabideei buruzko orientazioa bermatzea, jendarte zerbitzuei, atzerriartasun izapideei eta ziurtagirien kudeaketari dagokienez, eta baita kontratatzaileen zalantzak argitzea ere.

3. Auzozainak zerbitzua sortzea

Proiektu komunitario honetan, arrisku-adierazle eta geolokalizazioari esker, udalerriko adinekoren kalteberatasuna mapatzen da. Helburua da auzo-komunitatea (auzokideak, merkataria eta ostalariak, langileak...) egitasmoaren parte izatea, komunitatearen eta erakundearen arteko gobernantza-sareak sortzeko. Auzotarrek alde aurretik mapatutako pertsonen balizko arriskuez laguntzen, ohartarazten eta "auzoko zaintzaileen" lana egiten dute.

4. Pertsona migrante eta errefuxiatuentzako eskualdeko harrera plana

Ezkerraldeak 215.000 biztanle baino gehiago ditu, eta horietako askok munduko hainbat herritan dute jatorria. Biztanleen % 10 Espainiako Estatutik kanpo jaiotakoak dira. Eskualdean bizi eta ibiltzen garen herritar guztien eskubide, betebeharrak eta aukera berdintasuna defenda dezagun, haien jatorria, kultura edo sinesmenak edozein direla ere.

4.1. Ezkerraldera heldu berri diren pertsonen harrera integrala eskaintzea, gure udalerrietan erabat integratzeko.

4.2. Autonomia pertsonala lortzen lagunduko dieten baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa eta laguntza ematea, erabateko inklusioa eta oinarritzko eskubideak izatea helburu.

4.3. Komunitateari zuzendutako kultura arteko sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak sustatzea, elkarbizitza eta parte hartze espazioak erraztuz, pertsona migranteek eskualdeko bizitza sozial, kultural eta politikoan parte hartu dezaten.

5. Errolda soziala ezartzea eta sustatzea

EUDELek errolda soziala arautzen duen dokumentua onartu berri du, egoera berezietan bizi diren pertsonen erroldatzea errazteko. Ezkerraldeko lau udalerrietan ere neurri bera bultzatu behar dute Udalek.

Helburua da bizilagun guztiak —haien administrazio-, kontratu- edo gizarte-egoera kontuan hartu gabe— ofizialki "existitu" ahal izatea bermatzea. Hau da, oinarrizko eskubideak eta zerbitzuak eskuratzea, haien legezko egoera babestea, haien integrazioa bultzatzea eta gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, osasuna eta beste funtsezko laguntza batzuk eskuratzeko aukera bermatzea.

ehbildu